

Heri Aldizkaria

Automot

2000ko abendua 63. alea

ERIKALIZABEN
ZITZIZ
MINTZIZ
ELIZABEN



Ziztu bizian!!

Alfredo Mostajo eta Joseba Salaberria txapeldun

ERITZIZ-ERITZI: ESTANIS AGIRRE

ERREPORTAIA: APAOLAZA, FERIETATIK FUTBOL ZELAIETARA

SANTA LUTZITAKO FERIA 2000

ESKOLA PUBLIKOA

etorkizunerako aukera



2 urtetik 20 urte arteko kalitatezko eskaintza



Tel.-faxa: 943 72 12 14
e-mail: info.gainzuri@educanet.net
Sta. Barbara bidea z/g.
URRETXU



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-faxa: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
URRETXU



50 hamarkadan, euren zaindaria den Santa Barbara egun batean, Zumarraga eta Urretxuko elektrikariek egindako afarian ateratako argazkia.

Eserita ikusten ditugunak, ezkerretik eskubira: Vicente Ovejero, Jose Antia, Venancio Barrena, Juan Etxeberria, Bernardino Urzelai, Ignazio Arozena, Martin Herce eta Mariano Sanz.

Zutik, ezkerretik eskubira: Luis Aitxu, Faustino Espina, Bernardo Iraeta eta Ignazio Agirrebeña.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599



Goierri K.E.ko Mendi Sailaren denboraldi amaiera

Goierri K.E.ko Mendi Saileko lagunek denboraldiari amaiera emateko Basaburuako haranean mendi ibilaldia egin eta ondoren Donezteben bazkaldu zuten hilaren 17an. Datorren denboraldiko Goierriko mendizale karneta eskuratu nahi baduzue, ostiral honetan amaitzen zaizue epea. Horretarako elkartetik pasa zaitezke astelehenetik ostiralera arratsaldeko 7etatik iluntzeko 9ak bitartean.

Bestalde, aspaldiko urteotan ohitura den legez, Goierriko lagunek salda beroa eta txorixo pintxoak eskainiko diete Urteberri eguneko goizean Irimora igotzen diren mendizaleei. Urte berriari ongi etorria Irimo puntatik ematera gonbidatuta zaudete guztiok.

La Salle-Legazpi ikastetxearen IV. Jaiotza Erakusketa

Hilaren 22az geroztik La Salle ikastetxearen 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutilek egin dituzten jaiotzak ikusgai ditugu Itarte Etxean. Erakusketa urtarrilaren 7ra arte izango da zabalik eta honako hau da ordutegia:

Abenduaren 26, 27, 28, 29, 30, urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5etan, 6:30etatik 9ak arte.

Abenduaren 31n, 12etatik 2ak arte eta 5:30etatik 7ak arte.


Urtarrilaren 6an eta 7an, 12etatik 2ak arte eta 6:30etatik 9ak arte.

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.




Ferretería

BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Mario Gomezek birritan irabazi du estatuko txapelketa.



Mario Gomez ajedrez txapeliduna Eire tabernan arituko da urtarrilaren 8an

Datorren urtarrilaren 8an, arratsaldeko 8etan, EIRE tabernako II. Xake Txapelketaren aurkezpen ofizialari ekingo zaio. Jarraian, bi alditan estatuko txapelidun izan den Mario Gomez, lehenengoz

eta begiak itxita hainbat partida aldi berean jokatzen ausartuko da. Aurrean izango dituen aurkariak izango Eire tabernako txapelketan finalera iritsi ziren 4 lagunak izango dira.

Goñiren Oroimenezko pilota txapelketako finalak

Hilaren 8an Zumarragako Beloki pilotalekuan IX. Goñiren Oroimenezko pilota txapelketako finalak jokatu ziren. Finalak hasi aurretik pilota eskolako lau pilotari gazte elkarren arteko lehia aritu ziren. Azkenean Areizaga eta Rodriguez 18 eta 11 nagusitu ziren Alvarez eta Vianaren aurka.

Ondoren eskuz banakako finala hasi zen eta bertan Gorriti Sorraini nagusitu zitzaion 22 eta 15eko emaitzaz, partidu nahiko kaxkar batean.

Eskuz banakakoaren ondoren, binakako finalaren ordua iritsi zen eta bertan Yañiz eta Martinez de Eulate 22 eta 10 nagusitu ziren Huarte eta Navarrori. Aurtengo hau Yañizek Goñiren Oroimenezko txapelketan bikoteka irabazten duen hirugarren txapela du. Izan ere, 95an egun profesionala den Auxkinekin irabazi zuen eta 98an Errastirekin.

Antziñako Ama Txistulari Taldearen alarde arrakastatsua

Betiko moduan, Gabonak hurbiltzearekin bat, Antziñako Ama Txistulari Taldeak Alardea eskaini du aurten ere Beloki pilotalekuan.

Aurtengo Alardea abenduaren 16an izan zen eta bertan Antziñako Ama taldekoei lagunduz, Goiargi eta Kimets-Goiargi abesbatzak, Irrintzi eta Lurra dantza taldeak, Jasone Camara soinujolea, Nerea Urkiola pianojolea eta, nola ez, Euskal Herri osotik Zumarragara apropos etorritako txistulari ugari aritu ziren. Guztira berrehun bat lagun inguruk parte hartu zuten alardean Maria Jesus Arratibelen zuzendaritzapean.

Txistulariek, gainontzeko musikari eta dantzarien laguntzaz, hamalau pieza eskaini zizkioten Beloki pilotalekuko armailak ia bere osotasunean betetzen zituen ikuslegoari. Ikusleen urteroko erantzuna ikusirik, argi dago txistulari alardea erabat sustraitua dagoela.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU



Soziolinguistika jardunaldiak


Azaroko azken bi asteetan soziolinguistika jardunaldiak izan ziren Garaialde Lizeoan. Antolatzaileak Urretxu eta Zumarragako Udalak izan ziren eta jardunaldien helburua euskararen erabilera sustatzeko dauden programak eta ahaleginak ezagutzera ematea izan zen.

Azaroaren 21ean SEI elkarteko idazkaria den Imanol Esnaolak

“Euskalkien trataera eskolan eta ahozko-tasunaren inguruan bi hitz” izenburupean eskaini izuen bere hitzaldia. Aste bereko ostegunean, azaroaren 23an, Mondragon Unibertsitateko irakaslea den Julen Arexolaleibak “Motibazioa, guztiaren motorra” izeneko hitzaldia eman zuen Lizeoko areto nagusian.

Hurrengo asteartean, azaroaren 28an, Lasarte-Oriako Udaleko euskara

teknikariak, Iñaki Arrutik, “Hizkuntza planifikazioa udalerrri mailan” izenburupean bere udalerrian egin duten lana ezagutzera eman zuen. Jardunaldietako azken hitzaldia SEI Elkarteko Ikerketa Saileko arduraduna den Olatz Altunak euskararen bilakaeran prospekzioak egiteko erabiltzen den BEGIRA programa azaldu zuen Lizeoko informatika gelan argazkian ikusi dezakezuen moduan.



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA

Merkataritza Euskalduntzeko Plana

Autoeskolan stop edo utzi pasatzen

ZIRKULAZIOKO SEINALEEI BURUZKO ARAU OROKORRAK

FORMAK		ESANGURA	ADIBIDEAK
Triangelu aldeakidea, zerrenda gorriz		Arriskua	
Zirkulua, zerrenda gorriz		Debekua edo murrizpena	
Zirkulua, hondo urdinez		Betebeharra	
Laukia edo laukizuzena, hondo urdinez		Ohar orokorrak eta erreiei buruzkoak	
Laukizuzena, hondo urdinez; plaka zuri baten gainean ikurrak ditu		Zerbitzuak	
Laukizuzena, hondo zuriz, berdez, urdinez edo beste kolore batzuek egina		Orientazioa	

ZIRKULAZIOKO SEINALEAK

Gidariak ibilgailuko argiekin, edo, halakorik ezean, besoarekin egindako seinaleez gain (lehen aztertutako horiek), **errepideko hizkuntza dira, halaber, seinale hauek:**

- bide-marrak; hau da, zoladura gainean margotutako marrak;
- zirkulazioko seinale bertikalak, mota, forma eta kolore guztietakoak;
- semaforoak,
- balizak, eta
- bidezainen seinaleak.

Seinaleek multzo bat osatzen dute: bidezainen seinaleak eta aginduak, balizak, semaforoak, zirkulazioko seinale bertikalak eta bide-marrak. Bide-erabiltzaileei zuzenduta daude, eta honako eginkizunak dituzte: bide-erabiltzaileak ohartarazi behar dituzte bideetako edo zirkulazioko inguruabarrei buruz, baita informazioa eman ere, behar besteko aurrerapenez; horiez gain, bide-erabiltzaileen jokabideak arautu edo agintzeko ere badira seinaleok.

Gidariaren eskuliburua 219 Trafikoko Zuzendaritza Nagusia

Irakaskuntzan, autoeskolen sektorea atzera gelditu da euskararen normalkuntzari dagokionean, orain dela gutxi arte autorako gidabaimena lortzeko prozesu guztia, salbuespenak alde batera utzita, gaztelania hutsean burutzen baitzen.

Azkenaldian, ordea, aldaketa batzuk izan dira eta horiei esker badira gipuzkoar banaka batzuk baimena euskeraz lortu dutenak. Karneta euskeraz ateratzeko asmoa dutenek honako hau aurkituko dute:

-Materiala:

Testuliburua euskeraz argitaratuta dago. Gaztelaniaz idatzitakoarekin alderatuta potoloagoa bada ere, edukia berbera da.

Azterketa test modukoa denez, testen bidez prestatzen da. Euskeraz 16 test daude, azterketa prestatzeko ez dira nahikoa, horregatik, lan horretarako 16 horiez gain, gaztelaniaz daudenak ere erabili beharko lirarteke.

-Azterketa idatzia:

Euskeraz egin daiteke.

-Azterketa praktikoa:

Aztertzailer bakarra dago euskeraz azterketa egiteko gai dena. Aztertzailer ezin da aukeratu, zozketa bidez tokatzen denarekin egin behar da azterketa, beraz, azterketa zein hizkuntzatan egingo den zortearen arabera da. Aztertzailer erdaldun elebarkarrek autoeskola-irakasleak itzultzaile lanak egitea onartu izan dute.

URRET XU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonaen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

RENEDO argazkiak

Jarunarteak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRET XU
☎725682 ☎722292

MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

TRUPE
TABERNA

OBRA ZUZENDARITZA
PROIEKTUAK
KONTSULTAK
ALTZARIAK
TAPIZERIA
SOFAK

Marisa J. J. J.

DEKORADOREA Labeaga, 27
☎ - Faxa: 943 72 61 20
Mugikorra: 667 36 03 82
URRET XU



Estanis Agirre

Aita Villasanteren omenez

2000. urteko abenduko egun bati begira naiz ARANTZAZUTIK...!

ZUK, ZER DEZU... Arantzan zu...! Euskal kultura leku... Izkuntza... Arkaitzak... Mendi giro...
Natura... Euskal usaia... Arnasa... Fedea...?

Gaur argi aundi bat itzali da Euskal kulturarentzat, Eliz mendi batean, kuarto txiki apal batean...!

Oso errexa da bizimodu au, aizeak eta olatuak bare aldian eta norberaren alde dabilzanean...

Bañan... bañan... Txalupa lurpera dijoanean, ekaitzak erasorik...?!!

"HABLE USTE CRISTIANO"... Dantzara joan da kalabaza... Caseros... Soldaduskan...? Eskolan...?

Askotan badakit errepikatzen ditugula, gai batzuek adinekoak... Atzoko izparringia zaarra une onetan!!

Badakit analfabetoa naizela... aoz aoko Urola goenako euskera ikasi nuen baserrietan...

Bañan ez det uste "pasatzea" denik eta gogoerazi beari diegu gure ondorengoei...

Ainbat kosta zaigun gizartea, aberatsa benetan, bere akatsakin, gogorrek gaiñera... ez dagoela lo artuta egonda...

Etxaiak eta erasoak leen ere baziran...!! Aburgesatu gaituzte kontuz...!!

Goian aipatu detena berriz, Eliza, eta bere jokaera, Sinismena, Fedea, Oiturak, Giza eskubideak...

Onartu edo ez, ez daude bakoitzarentzat aukeran, Buru bakoitza... nobela bat omen da...

Ordenadorekin aurrerapen aundiak... bañan pertsonen barruak ezin konpondu... Orrela balitz...!!

Beintzat argi utzi bear degu, Elizak, gure Euskal kulturaren alde UNE gogorretan, oraintxoan, laguntza aundi bat eman zigula, ixil-ixilean, xator lanean, oiurik eta pistolarik gabe, bere babesean lan asko egin genuen guraso romantiko askok, gauz asko lortuz...

Denon bista daude...!! Falta direnak zuentzat... GAZTE... Nere motorrak gelditzen ari dira!!

Adibide bezela...!! Pagoeta!! Zer izan da eta zer dago...? Ausnartu historia...?

Milla bider eta egun pasa genituen, antzoki zaarrea ainbat lan, Antzerki, Olerki, Eztabaida.

Irakurketa Elizaren euskeran, etzegon besterik... beti atea zabalik...


Bestea FET y de las JONS... El Yugo y las Flechas... zen aukera...

Gaia aldatuz "txapa" izan gabe... BAKEA PAKEA ELKARRIZKETA eta AZPIJANEAN ZER...? Egunero berdin...!!

Bittoriano Gandiagarekin "Frailearekin"... bertsoetan... Eztabaidan... bere lerroak irakurtzen... Arantzazun...

Ez da naikoa zure bakea,
ez da naikoa nira.
Ez da naikoa nire bakea,
ez da naikoa zurea.
Bakea ez da bakoizka bake,
zuk zeurea, nik neurea;
bake ezin daiteke bake
ez baldin bada gurea,
ez baldin bada geure banako
bakean arteko bakea.
Bake geiegi darabilkigu,
banako bake geiegi.
Talde bakoitzak, buru bakoitzak,
bere bakea du begi,
bere bakea du begi eta
bere bakea du tegi.
Elkarrengandik banan gabiltza
bana eta banuetegi,
banako bake guztiak bildu,
bake bakarra eregi.
Nire bakeak bear du zabal
zureganako atea,
zureak ere bear du zabal
nireganako artea.
Ez esparrurik, ez eta hesirik,
argi eta garbi tartea,
gure bakeok behingoz dezaken
ikusi bata bestea eta
elkarri eman bakea.

Elkar ditzagun gure bakeok,
banan ditugun bakeak,
elkar ditzagula partidu eta
siglen arteko aleak,
merezi du eta bake gustiez
bake ere bat ontzeak,
bake ere ta bake bereko
ogi beretik jateak,
bakeen bakeaz ase ditzagun
bake egarri goseak.
Bake itxirik ez dugu behar,
sigletan itxirik bakerik,
sigletan ez da kabitzen eta
bake exkaxa besterik.
Aska dezagun bake gaixoa
hainbat siglaren menpetik
guztiongana hurbil ahal dadin
trabarik gabe, solterik,
haren ongia goza dezagun,
bakean eta librerik.
Denon artean egin dezagun
guztiontzako bakea,
bertatik kanpo inor utziko
ez duen bake legea,
bake horretan bakoitzak ikus
ahal dezala bere partea
ahal dezan bere parte eta
ahal dezan bere tartea,
bakean dezan aurrerapena,
bakean gozabidea.



Zer diozu behi eroen auziari buruz? Txahal haragia jaten jarraitzen al duzu?



David Madinabeitia

Ez dut inongo kezkarik, hemengo behiek inongo arazorik ez dutela uste dudanez, haragia hemengoa dela badakit, lasai asko jaten dut.

Arazoa dutenek aurkitu beharko dute konponbidea.



Elisabete Perez

Ez dut oso argi zer egin beharko litzatekeen, baina behi bat gaixo badago ingurukoak ere hiltzea gaizki iruditzen zait. Jateari dagokionez, jaten jarraitzen dut, hemengo behiek ez dutela arazorik uste baitut.




Maite Zaldúa

Arazo hau dela eta, orain behiki haragia erosi behar dudan bakoitzean hemengoa den begiratzen dut eta lehenago baina gutxiago jaten dugula uste dut.



Juanito Arbizu

Orain arte lasai asko ibili gara saltzen ziguten edozein gauza erosi eta jaten, baina honelakoak entzunda nire ustez hemendik aurrera kontu handiagoz ibili beharko dugu.



Conrado Muñoz

Arazo honek mamia du gero! Nire ustez behi haragia jaten jarraitu beharko genuke, baina lehen baino kontu handiagoz ibili beharko dugu eta bizitza osoan gure harakina izan denari erosi.



Idoia Busca

Arazoak ez nau bereziki kezkatzen, lehenago ere antzeko auzi batzuk egon baitira eta halakoetan ez dela obsesionatu behar uste dut.

Nik haragia jaten jarraitzen dut, hemen ez dagoela arazorik uste baitut.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbiza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Apaolaza: ferietati

Real Madrilek Iruñean Osasunaren aurka jokatu zuen partiduaren eguneko kirol egunkarietako argazkiak ikusi genituenean, hainbat herritar harriturik gelditu ginen: madrildar taldeko jokalaria Urretxuko Apaolaza sendiaren autobus baten barruan ageri ziren. Jakinminak jota Josu Apaolazarekin harremanetan jarri ginen eta honek Real Madrileko jokalaria eramatearen arrazoien berri emateaz gain, 1928an bere aitona autobus enpresa sortu zuenetik makina bat bizipen izan dituztela jakinarazi zigun. Urte hauetako guztietako istorioak ezagutzeko Josurekin eta bere aitarekin, Julianekin, solasaldia izan genuen etxepan duten pabiloian.

Apaolazatarren autobus enpresa Julianen aitak, Juanek, sortu zuen 1928an, autobusak gordetzeko erabiltzen duten beraien etxazpian ondo jartzen duen moduan. Lehen autobusa erosi aurretik Gabirian bizi zen Julianen aitona jendea feria eta erromerietara eramaten zuen bere gurdian, baina 20. hamarkadan Julianen aitak etorkizuna autobusak zirela ikusi zuen eta Renault markako txasis bat erosi zuen 9.000 pezetatan (3 baserri erosi zitezkeen orduan diru horrekin). Txasisa karrozatu beharra zegoenez, gurdiak egiten zituzten Ormaiztegiko Irizarrengana jo zuen eta orain munduko autobus karrozzeria enpresa nagusienetakoa den honek karrozatu zuen lehen autobusa Apaolazatarrena izan zen.

Irizarren sekula autobus txasis karrozatu gabeak zirenez, Logroñora joan ziren Juan Apaolazaren txasisa nola karrozatu behar zuten ikastera. Izan ere,



Juan Apaolazak 1928an erositako autobusaren marrazkia.

Logroño estatuko autobus karrozerigintza sorlekua baita. Julianek dioenez, “garai hartan karrozzeria guztia egurrezkoa izaten zen eta txaparik ez zegoenez, autobusaren zolua eskuz laututako 200 litroko bidioien txaparekin forratzen zuten. Irizarrek egindako lehen autobus hura ere halakoa zen”.

Irizarrek karrozatutako lehen autobusa Juan Apaolazak 1928an erositakoa izan zen

Autobus hura hizpide bihurtu da azkenaldian, Irizar enpresan aritutako zenbait langile jubilatutako lehen autobus haren kopia bat egiteko asmoa baitute aspalditik. Enpresako egungo zuzendariei 10 milioitako aurrekontua aurkeztu ostean, hauek autobus hura egitea onartu dute. Lehenengo autobus hura berregiteko

Apaolazatarrengana jo dute laguntza eske. Izan ere, beraiek autobus haren ezaugarriak jasotzen dituzten paperak gorderik baitituzte oraindik eta baita haren marrazkia ere pabiloi aurrean. Julianek primeran gogoratzen du, gainera, autobus hura nolakoa zen, berarekin ikasi baitzuen gidatzen 9 bat urte zituela: “karrozzeria guztia egurrezkoa zuen, bolantea eskubian zuen, ez zuen intermitenterik eta asko jota 70 kilometro orduko abiadura soilik hartzen zuen. Pentsa, 80 bat urte izango dituen herritar batek duela gutxi autobus hartara martxan igotzeagatik ahopean hartutako kolpea erakutsi zidan!”

Julianek esan digunez, “Irizar anaietako batek kontatzen duenez, beraiek konpondu zuten lehen autobusa ere gurea izan zen. Izan ere, gure aita sekula autobus bat gidatu gabea zen eta Irizarren kotxeratik ateratzen ari zela kolpe bat eman zion”. Bestalde, “garai hartan oraindik karnetak banatzen hasi gabeak ziren eta gure aitak urtebete eman zuen karnetik gabe lanean. Besteei ikusiz ikasi zuen gidatzen”. Urtebete pasatu ondoren Juanek gida baimena atera eta

k futbol zelaietara



Sekulako jendetzaren artean heldu zen Apaolazarren autobusa Real Madrilek ostatu hartu behar zuten hotelera.

jendea ferietara, azoketara eta erromerietara soilik eramateko baimena ematen zion garraio txartela eskuratu zuen.

Julianek dioenez, “lan asko egin zuen nire aitak autobusarekin, garai hartan oso autobus gutxi baitzegoen inguruotan. Ezkion Amabirjiña azaldu zenean ere, makina bat joan etorri egin zituen eta diru asko egin zuen”. Baina handik urte gutxira Gerra Zibila hasi zen: “Gerra garaian autobus hura errekiatu egin ziguten eta bando batetik bestera ibili zen. Halako batean Francoren aldekoek, ikurriña zeramaten hainbat autobus ikusi zituzten, gurea tartean, eta hauek gasolinaz busti eta su ematen hasi ziren. Gureari su eman behar ziotenean, aita ezagutzen zuen beasaindar batek ea pertsona on batena zen autobus hari zergatik su eman behar zioten galdetu zien. Azkenean ez zioten autobusari su eman, baina gizon hura hartu eta hil egin zuten. Hura jakin zuenetik nire aita urtero joan zen gizon hura hilobiratu zuten Donostiako hilerrira”.

Autobusa gelditu behar izan zuen eta emakumeak Salbatoreko tabernan erditu zuen

Gudan erabili izanak lehen autobus hura kaltetu bazuen ere, Juanek guda ostean berreskuratzea lortu zuen eta 1959a arte jendea Beasain arteko herrietako feria, merkatu eta erromerietara eraman zuen 1928an erositako autobusean. Onenak eman zituenean, beste bat erosi zuten Apaolazarrek eta honekin hasi zen Julian lanean soldaduskatik itzuli ostean: “aitak 60 bat urterekin utzi zuen lana eta autobus hori eramateko inor ez zegoenez, nik erosi nion 150.000 pezetatan”.

Patricio Etxeberriako langileak eramanez hasi zen lanean eta ordutik inguruotako langile eta ikasle asko eta asko eramateaz gain, Europa guztiko bazterrak

ezagutzeko aukera ere izan du sei urtez madrilego agentzia batentzat bidaia luzeak egiten ibili baitzen. Egun ere hauetako batzuentzat lan egiten dute Apaolazarrek eta esaterako Donostiara etortzen diren bakoitzean Real Madrileko jokalariek aireportutik hotelera eta bertatik futbol zelaira eramaten dituzte. Julian eta Josuren, semearen, esanetan “Futbol talde gutxirekin lan egin dugu, beraien autobusa izaten baitute, baina madrildarrek hona etortzen direnean badaezpada ere nahia go dute hemengo autobus bat hartu. Oso jende edukatua da, baina jokalariek ez dugu harremanik izaten. Seguridadeaz arduratzen denak agin-

duak ematen dizkigu eta bai bera bai “Chendo” delegatua oso jatorrak dira. Iaz hasi ginen beraiekin lanean, Errealaren aurka, eta Real Madrilekoak gustura gelditu ziren gurekin nonbait, aurren Iruñeara ere beraien bila gu bidaltzeko eskatu baitiote beraiekin lan egiten duen agentziari”.

Inguruotako baserritarrak ferietara eramaten hasi ziren Apaolazatarrak, lau belaunaldiren ostean, Real Madrileko jokalariek ere eramatera pasa dira eta 72 urte hauetan makina bat pasadizu bizi izan dituzte. Hauen guztien erakusle, hona hemen Julianek gaztetan bizi izan zuena: “17 bat urte nituela haurdu zegoen emakume baten senarra etorri zitzaigun etxera: medikuak Beasaingo ospitalera eraman beharra zegoela esan zuela eta ea eramango genuen. Nire aita etxetik kanpo zegoenez, autobusa hartu eta hor abiatu nintzen senar-emazteekin eta medikuarekin. Bidean emakumea gaizki jarri zen, Salbatoren gelditu ginen eta bertako tabernan erditu zuen”.

TXIKIMOTZ

“Oporretan jolasteko eta kirola egiteko asmoa dugu”



Hilabete honetan La Salle-Legazpi ikastetxean Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutil batzuekin izan gara. Beraiek Gaizka Orbegozo, Alex Bravo, Andoni Iglesias, Iker Fuentelsanz, Gorka Hurtado, Carlos Corrales, Nerea Gonzalez de Audikana, Silvia Berjillos, Ander Avila, Nahikari Arias eta Joseba Maroto dira.

Beraietako batzuk iaz hasi ziren eskola kirolean eta gainontzekoak aurtengo ikasturtean hasi dira. Orain saskibaloian jokatzen ari badira ere, urtean zehar beste hainbat kirol ere egingo dituzte. Hauen guz-

tien artean futbola dutela gustukoan esan ziguten eta gutxien atsegin dutena, berriz, igeriketa omen da. Kirola egitea asko atsegin dutela esan ziguten eta beraiei aukera emanaz gero, orainarte egiteko aukerarik izan ez duten zein kirol hautatuko zituzten galdetu genienean, eskalada eta hockeya aipatu zituzten.

Beraiekin izan ginenean Ispilla kiroldegian zeuden entrenatzen Sandra eta Naiara entrenatzaileen ardurapean eta hauengatik ere galdetu genien. Esan zigutenez, entrenatzaileak batzuetan ez omen dira beraie-

kin oso zuzen portatzen, zigortu egiten baitituzte. Ez gaitu harritzen Sandra eta Naiarak zenbaitetan gogor egin behar izatea, bihurri xamarrak direla ikusteko aukera izan baikenuen!

Dena den, ez da harrizkoa beraiekin izan ginenean aztoraturik egotea, Gabonetako oporrak gainean baitzituzten. La Salle ikastetxeko haur hauek esan zigutenez, oporretan nahi adina jolasteko eta kirola egiteko asmoa dute. Horretarako Olentzero beraiekin ondo portatzea espero omen zuten, nahiz eta seguraski ez diren urte osoan oso txintxoak izan.

TXIKIMOTZ



MURUA

Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42



HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



KABIA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA



2000KO SANTA LUTZITAKO FERIA

Urteroko legez, abenduaren 13an urretxuar eta zumarragarrok gure bi herriek elkarrekin ospatzen dugun jai egunik garrantzitsuena ospatu genuen. Asteazkena izan arren, kanpotar ugari hurbildu zen gure bi herriotara eguraldi bikainak animaturik eta herritarrokin batera guretzat paregabea den egun honetaz gozatu ahal izan zuten. Ohitura den moduan, goizean musikarien soinuek lagundurik, bi herrietako kaleetan banaturik zeuden postu ezberdinak

ikusten eta gustuko zerbait topatuz gero erosketaren bat egiten ibili zen jendea. Bazkalostean, kirolzaleek eta apustuzaleek profesionalen arteko pilota partiduak zein idi-probak ikusteko aukera izan zuten. Herriko etxeetan banatu zen egitarauan eguneko azken ekintza Alaitz eta Mainerren saioa bazen ere, herritar zein kanpotar askok honi gaueko parranda gehitzea erabaki zuten eta hau ahal izan zuten edo utzi zieten guztia luzatu zuten.



2000KO SANTA LUTZITAKO FERIA



Oilasko eta kapoi lehiaketa

Kapoi lehiaketa

Euskal arrazako kapoiak

- 1.: Mari Carmen Uranga (Hernani).
- 2.: Maritxu Alberdi (Aizpurutxo).
- 3.: Xabier Goikoetxea (Albistur).

Arraza arrunteko kapoiak

- 1.: Jose Ugartemendia (Errezil).
- 2.: Jose Urdanpilleta (Tolosa).
- 3.: Maria Teresa Albisu (Lazkao).

Oilasko lehiaketa

Euskal arrazako oilaskoak

- 1.: Maria Luisa Zubiarrain (Albistur).
 - 2.: Itziar Agirrebengoa (Zumarraga).
- Herriko oilasko parerik onena: Itziar Agirrebengoa (Zumarraga).

Arraza arrunteko oilaskoak

- 1.: Joxe Urdanpilleta (Tolosa).
 - 2.: Maria Jose Goikoetxea (Albistur).
- Herriko oilasko parerik onena: Pablo Izagirre (Urretxu).



2000KO SANTA LUTZITAKO FERIA

Barazki, fruta eta errezil sagar lehiaketak

Zumarraga

Barazki lehiaketa

- 1.: Jose Manuel Zabalegi (Martutene).
 - 2.: Jesus Artola (Anoeta).
 - 3.: Mercedes Urien (Bergara).
- Eskualdeko lote onena:

Fruta lehiaketa

- 1.: Agustina Iradi (Hernani).
 - 2.: Maria Etxezarreta (Gabiria).
 - 3.: Antonia Murgiondo (Gabiria).
- Eskualdeko lote onena:

Errezil sagar lehiaketa

- 1.: Maria Isabel Zumalakarregi (Gabiria).
 - 2.: Xabier Arratibel (Gabiria).
 - 3.: Aitor Elozegi (Gabiria).
 - 4.: Maria Etxezarreta (Gabiria).
 - 5.: Mari Carmen Uranga (Hernani).
- Eskualdeko lote onena: Pakea Galdos (Gabiria).

Barazki, fruta eta errezil sagarren artean lote onena
Jesus Artola (Anoeta).

Urretxu

Barazki lehiaketa

- 1.: Tomas Larrañaga (Antzuola).
- 2.: Antonia Murgiondo (Gabiria).
- 3.: Jose Lonbide (Aretxabaleta).

Fruta lehiaketa

- 1.: Kontxi Izagirre (Antzuola).
- 2.: Miren Agirrezabalaga (Gabiria).
- 3.: Antonia Murgiondo (Gabiria).

Eskualdeko barazki eta fruta lote onena
Antonia Murgiondo (Gabiria).



2000KO SANTA LUTZITAKO FERIA



Abere lehiaketa

Haragitarako

Zaldirik onena: Iñaxio Garmendia (Zaldibia).
 Behorrik onena: Jose Ramon Peñagarikano (Gabiria).
 Urteko moxalirik onena: Jose Ramon Peñagarikano (Gabiria).
 Eskualdeko lote onena: Jose Ramon Peñagarikano (Gabiria).

Pottoka (A atala)

Zaldirik onena: Jose Maria Lopez Aperribay (Donostia).
 Behorrik onena: Zaldibia Aralar Pottoka Elkarte (Zaldibia).
 Urteko moxalirik onena: Zaldibia Aralar Pottoka Elkarte (Zaldibia).

Pottoka (B atala)

Zaldirik onena:
 Behorrik onena: Joaquin Anso (Urnieta).
 Urteko moxalirik onena: Patxi Aranburu (Orio).



2000ko Santa Lutzitako Ferian parte hartu duten abereen kopurua

Zaldiak	20
Moxalak	167
Behorrak	33
Pottokak	31
Astoak	70
Mandoak	2
Ahuntzak	35
Ardiak	3
Behiak	2
Poniak	38
Idiak	6
Guztira	407

Ramon Aranzabalen zurezko tailak

Ramon Aranzabalen zurezko tailen erakusketa abenduaren 17a arte ikusgai izan dugu Itarte Etxean eta egun hauetan herritar ugari hurbildu da berak egurrez egindako kutxa, armari, lore eta gainontzekoak ikusi eta erostera. Urte askotan bere tabernan lanean egon denez, horregatik da ezaguna batez ere herrian Ramon, baina aspalditik du berak egurrarekin hartuema-na. Izan ere, garai batean paper-fabrika batentzat baso-etako zuhaitzak bota eta kamioian biltzen zituen eta ondoren arotz lanetan ere aritu zen. Duela lau urte, ordea, egurrarekin eskulanak egiten hasi zen eta ordutik Antio inguruan aurki dezakegu arratsaldero mimoz eta doitasunez egurra lantzen.

Nolatan hasi zinen zurezko tailak egiten?

Jubilaturik nengoen eta lehenago ere egurrarekin lana egina nintzenez, Idiazabalen egurrezko tailak egiten ikasteko antolatuta zuten ikastaro batean izena eman nuen. Hau duela lau urte izan zen eta urte hauetan pixkanaka ikasten joan naiz. Dena den, beti dago zer ikasi eta oraindik ere Idiazabalera joaten naiz.

Lan asko egin al dituzu lau urte hauetan?

Itarte Etxeko erakusketan daudenak eta etxean ditudan beste hainbeste. Baina etxean ditudanak lehenengo urteetan eginak dira eta behar bezalako maila ez dutenez ez nituen erakusketara eraman.

Bereziki maite duzun tailaren bat ba al duzu?

Nahiz eta urteetan horretan aritu naizen, arotz lana ez dut gustuko, zutik egon beharra baitut eta nekatu egiten baina. Atsegin dudana taila lana denez, apaintzea, kutxak egitea baino nahiago dut taila lana soilik eskatzen duten lanak egitea. Hauen artean erakusketara joan den jendeari tailaturiko lorak bereziki



Abenduaren 17a arte Ramon Aranzabalen zurezko tailak ikusgai izan dira Itarte Etxean.

gustatu zaizkiola ikusi dut.

Nolatan sortu zen erakusketa antolatzeara?

Idiazabalen ikastaroa eman zue-nari Zumarragara ere etortzea proposatu genion, baina ikastaroa emateko lekurik ez zegoenez Zumarragako Udaleko kultura teknikariek tabernan ematea proposatu zidaten eta hala egin genuen. Ondoren nire lanekin Itarte Etxean erakusketa egitea ere proposatu zidaten eta hala egin dugu. Ez nuen uste inondik inora ere hainbeste jende hurbilduko zenik erakusketara.

Antiora etortzen zara lan egitera, zer dela eta?

Hemen oso gustura aritzen naiz lanean, eguraldi txarra egiten duenean Elizalde alboko estalpean eta ona egiten duenean, berriz, elizaren goialdeko

mahaietan. Eguzkiak sortzen duen argia, gainera, askoz ere hobea da lan hau egiteko familiaren taberna barrukoa baino.

Ordu asko sartzen al dituzu egunean?

Egunak dituen guztiak gehiengotan, baina hau fabrikari lan egitea baino atseginagoa da, hemen ez da izerdirik botatzen... Ez dakit ezer egin gabe egoten eta jubilatuta nintzenen tailatzea eguna betetzeko zaletasun bezala hartu nuen eta baita eguna bete ere!

Zein egur erabiltzen duzu?

Haritzaren eta gereziendoarena batez ere. Hasi nintzenen 3 m3 egur erosi nituen eta horiekin aritu naiz lanean orainarte. Egurra ez da garestia, onena ez baitut erosten gainera. Izan ere, egurrak korapiloak izatea berdin zait, lan txikiak egiten ditudanez korapiloa duen zatia kendu eta kitto.



Zorionak eta urte berri on Juana, zure seme eta biloben partetik. Jaio zinenerako ia urtea pasa zitzaizun emakumea!



Ainhoa, hori da hori bekoskoa! Olentzerok ez al dizu eskatutakoa ekarri ala? **Zorionak eta ondo ibili!**



Alfon, zer habil "La matanza de Texas" filmako hiltzailearekin parrandan? Hik dauzkek hik potroak! **Zorionak!**



Ana, Olentzerok eskatu zenion oparia ekarri dizula dirudi! Hori da hori alaitasuna! **Zorionak eta segi horren alai!**



Ander, bihurri aurpegia duzun arren, Olentzerok eskatu zeniona ekarri al dizu? **Zorionak!**



Anes, non utzi duk Pitu? A zer txofer pareo karakola eta barea! **Zorionak eta txintxo ibili Gabonetan!**



Elkarri pegata oso gustura zaudetela dirudenez, oraingoz ez zaituztegu Ingalaterrara bidaliko... **Zorionak David eta Jonatan!**



Zorionak Jesus eta Gloria. **Gorka** jaioberria marraztu dugun haurra baino politagoa izatea espero dugu...



Haritz, ez itzak pentsalari plantak egin, denok zekia-egu eta nahiko buruarina haizela. **Zorionak!**



Iñigo, txapela buruan, zapia lepuan eta neskaren ... eskuan, bero-bero ibiliko haiz aurtengo neguan! **Zorionak!**



Iñigo, ez al zara inoiz Urteberri egunean Irimo puntara igo? Gu ez gara baldintzarik onenatan egoten eta egizu gure ordez! **Zorionak!**



Irrifartsu eta axolagabe ageri zaigu emakumea, bere izenak zer arraio esan nahi duen ez dakien arren. **Zorionak Ismene!**



Ivan, aurtengo Gabonetan etzazu txanpan gehiegi edan, bestela ezingo duzu eta fundamendu ezker esan! **Zorionak!**



Kalimero, batzuek txapela buruan eta zuk, ordea, arrautza-oskola! **Zorionak Jairo** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Jabier, Gabonetan zeure saltsan ibiltzen zaren itxura hartzen dizugu... Hala bada, ondo pasa! **Zorionak!**



Jebi, zer moduz ezkonberritako lehen asteak? Ez hintzen ba jada damutuko... **Zorionak eta ondo ibili!**



Jesus Maria, eta Joxe non da? E! Badakigu zer esan gutxien izan zuena izan zela baina beti bera ahaztea ere! **Zorionak!**



Jose Luis, Gabonzahar egunean Aizkorriara joateko asmoa izango duzu ala? **Zorionak eta ondo ibili!**



Julene, argazkilaria argazki txukuna atera nahian eta zu albo batera begira... fundamendu gutxiko emakumea! **Zorionak!**



Maialen, jakin badakigu putz egiteko desiatzen zaudela. Horretarako eguna iritsi zaizu, **zorionak eta urte askotarako.**



Maria, eutsi izeazioz parreari bestela zuri ere adarra joko dizugu eta! **Zorionak eta ondo ibili!**



Luis Mari, hilabete honetan lanez gainezka izango zinen arren, aterako zenuen katekistekin meriendaren bat egiteko astirik...



Maria Jesus, hori da hori irrifarrea, Santa Lutzitako ferian senarra saltzea lortu zenuen ala? **Zorionak!**



Mikel, bihurri aurpegi hori ikusita Olentzerok ekarri al dizu zer edo zer? **Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.**



Mikel, Seat 600ean jarria zuen argazkia kendu al diozu aitari Otamotzen ateratzeko? **Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!**



Irrifartsu ageri zaigu neska gero! Mutil gazteren bat topatuko zuen non-bait! **Zorionak Nagore** eta kontuz gabonzaharretan!



Pilar, orain damutzea ez da nahikoa, urte guztian ondo portatu behar zara Olentzerok opari ederra ekarri diezazun! **Zorionak!**



Gustura ageri dira gero **Tomas eta Maria** euren bilobekin! Ea Anesek ere egunen batean ezustekoa eman eta igande eguerdian neska lagunarekin (eta ez egunkariarekin) azaltzen zai-zuen txintxo-txintxo bazkaltzera! **Zorionak eta ondo pasa Gabonak!**



Udane, ondo dago izenari ohore egin nahi izatea, baina neguan gara eta tirantezko kamisetaz hotza pasako duzu! **Zorionak!**



Xabier, Olentzero zure etxeko pinuaren ondoan opariak ipintzen harrapatu duzula dirudi, hori da sustu aurpegia motel! **Zorionak!**



Hona hemen benetako Txapelunk. Neskak, ez zaitetzte engainatzen utzi eta ez erosi imitazio-rik! **Zorionak Torner!**



Estitu, errespetatu ezazu euskal mitologia eta etzazu Olentzeroren bertsio diskoteke-roa kantatu mese-dez! **Zorionak!**

CHIARA
Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak
 Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazaletan
 20700 URRET XU

TABERNA
Belarzoim
JATETXEA
 Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belarzoim
 Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
 Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak
 Legazpi, 5 ☎ 72 11 55
 Zumarraga
 Labeaga, 43 ☎ 72 16 81
 Urretxu
 Kale nagusia, 5 ☎ 73 04 19
 Legazpi
*** ZURE ESTUDIOA ***

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
 S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

Mostajo, Megane Koparen irabazle

la bi urte pasatu dira jada Alfredo Mostajo pilotuarekin hitz egin genuenetik. Orduan estatuko serie autoen txapelketa irabazi berria zuen Citroen ZX batekin eta guztiz ilusionaturik zen 99ko denboraldian erresistentzia txapelketan parte hartzearekin. Zoritarrez ekimen hark ez zuen aurrera egin eta iazko denboraldian Megane Kopan parte hartu zuen. Lehenengo urtea izan arren, 4. postuan gelditu zen eta aurten txapelketa irabaztea lortu du. Hau ikusirik, Renault etxek Europako zirkuitu garrantzitsuenetan korritzen den Clio Trophy txapelketan parte hartzea eskaini dio. Alfredo denboraldi berria hasteko irrikitan dago, baina betiere bere azken helburua ahaztu gabe: Le Mansgo 24 orduetan parte hartzea hain zuzen ere. Bere buruarengan duen segurtasuna eta bere lana nola bizi duen ikusirik, guk ere bere aldeko apustua egingo genuke.

Alfredok Ormaiztegiko Aimosporten lana egiten du kotxeak konpondu eta prestatzen.



Nolakoa izan zen Citroen ZXatik Meganerako pausua?

Meganeak kalean dabilen moduluaren antza handiagoa du ZXak zuena baino. ZXak gehiago korritzen zuen, gehiago frenatu... Baina honek ez du esan nahi Megane gidatzea errazagoa izan denik. Birziklaia lana egin behar izan nuen, ZXa gidatzeko ikasi behar izan nituen gauza askok Renaulta gidatzeko enbarazu egiten baitzidaten. Bestalde, Megane Kopan maila bajuagoko pilotuak daude, baina pilotu gehiago. Ondorioz, egun txar bat edukiz gero, oso postu txarra lortzeko arriskua dago. Lehen urtean presio handi xamarra nuen, serie autoen txapelketa irabazi ostean Megane derrigor irabazi beharra nuela baitzirudien, baina presioarekin bizi izaten jakin behar da.

Iaz laugarren gelditu zinen eta aurten irabazi egin duzu, nola joan da denboraldia?

Aurten talde berriarekin aritu naiz eta iaz baino baldintza hobek izan ditut. Hori dela eta, lasterketa guztiak amaitu ditut eta zortzi lasterketatik lau irabazi ditut, behin bigarren gelditu naiz, bitan hirugarren eta Albaceten zazpigarren gelditu nintzen. Oso erregular aritu naiz eta nahiko erraz irabazi dut txapelketa.

Datorren urtean Clio Trophya korritu

behar duzu...

Renaultera pasa nitzenean lehiaketa honetan parte hartzeko asmoa nuen, baina kompetentziatik nentorren eta beraiek lehenengo Megane gidatzen jarri zidaten balio nuena erakutsi nezan. Nire balioa berriro erakutsi beharra izan da azken bi urte hauetako gauzarik gogorrena. Irabazi ondoren saltua emateko aukera eskaini didate eta apiriletik aurrera Europa mailako txapelketa honetan parte hartuko

“Datorren urterako Gipuzkoarrez soilik osatutako taldea eratzeko asmoa dugu”

dut. Zenbait zirkuitutan (Monaco, Monza, Spa-Francochamps) Formula 1arekin batera korritzen da eta hauetaz gain, Donningtonen, Assenen... ere arituko gara. Kotxeak 300 zaldi ditu eta lehiakideak oso onak dira, behetik gora goazenok goitik behera datozenekin lehiatuko baikara. Formula 1ean, Le Mansen, 3000 formula... aritu den jendearekin besteak beste.

Zein da zure helburua denboraldi berri-rako?

Irabazi dezakedala uste dut,

noski, bestela ez bainintzake lehiatuko; baina lehenengo urte hau lasai hartu eta ikasteko erabili behar dut. Izan ere, Monakon, adibidez, hiri barruko zirkuitua denez, kronometratutako entrenamenduetan sartuko gara zuzenean; kontuan hartu behar da aurreko urteetan arituek, jada zirkuitua ezagutzen dutenez, abantaila handia dutela. Argi dago ezin naizela itsu-itsuan atera, bestela istripua izango bainuke. Bigarren urterako zirkuituak nolakoak diren ezagutuko eta autoa beraietara nola egokitu jakingo dut.

Zein talderekin aritu behar duzu?

Renaultek aurrekontuaren oso zati garrantzitsua ematen dit eta Danimarka edo Alemaniako taldeekin aritzeko eskaintza dudan arren, nire asmoa Gipuzkoarrez osatutako talde bat osatzea da. Zergatik? Alde batetik, beste talde batera joanez gero beraiek Renaultek eta gainontzeko patrozinatzaileek ematen didaten laguntzaz baliatuko lirartekeelako eta nire kontura dirua egingo luketelako. Bestetik hemengo talde bat sortuz gero lehen urtea lasai hartuta ere jarraipena izateko aukera izango genukeelako. Hori dela eta, zenbait lagun bertako enpresen laguntza lortzen saiatzen ari gara. Hemengo enpresa askok Europa mailan ere bezeroak dituzte eta auto lasterketa talde bati laguntzeak irudi gazte, dinamikoa eta teknologikoa ematen lagun diezaike.

Joseba Salaberria: Euskadiko enduro txapelaldun

Joseba Salaberria oso gaztetan hasi zen jada motorrean, bere aitaren motorrarekin. Zaletasunak bultzaturik ahal bezain pronto mendian ibiltzeko motorra erosi eta lagunekin ibiltzen hasi zen. Iaz, Euskadiko enduro txapelketan parte hartzea erabaki zuen eta bigarren denboraldia izan duen honetan Euskadiko Trofeoa irabaztea lortu du junior mailan. Datorren denboraldia azkena du junior mailan eta teknikoki zailxeagoa den Euskadiko Txapelketan parte hartzea erabaki du.



Joseba, motorra konpontzeko eta prestatzeko erabiltzen duen bere garajea.

Zer da zehazki enduroa?

Enduroa motokrosaren eta triala-ren arteko nahasketa modukoa da eta nire ustez modalitate osoena da. Izan ere, motokrosaren abiadura triala-ren teknika beharrezkin nahasten da. Enduroko motorrak motokrosekoak bezalakoak dira, baina kalean ibiltzeko beharrezkoak diren matrikula eta paperak dituzte. Serieko diren arren, gero norberak gure gustura prestatzen ditugu. Mendian, hiru itzulitan, 90 bat kilometro egiten ditugu. Lasterketa bera hasi aurretik lehen itzuli bat egin behar da denbora zehatz batean, ibilaldi neurtuetan gertatzen den moduan, eta ezarritako denbora betetzen ez badugu zigortu egiten zaigu. Lehen itzuli honen ostean, 3 itzulitako lasterketa hasten da eta hemen jada ahalik eta azkarren joan behar da.

Nola entrenatzen duzu?

Baserritar batek lursail bat alokatu digu zenbait laguni entrenatzeko eta bertan zirkuitu txiki bat prestatuko dugu. Izan ere, denborak hartzen lagunduko digun erreferentzi bat beharrezkoa dugu denbora hauek hobetzeko zer egin dezakegun frogatzeko. Bestalde, motorrean ibiltzeaz gain, gimnasioan ere hasi nintzen eta oinez ere ibiltzen naiz entrenatzeko. Entrenatu beharra dago, jende askok hala uste ez duen arren, laupabost orduz topean moto gainean ibiltzeak asko nekatzen du.

Euskadiko Trofeoa irabazi duzu, nola joan da denboraldia?

Aurten 8 lasterketa korritu behar genituen, baina azkenean 5 bakarrik antolatu dira. Izan ere, itzuli luze xamarak egiten ditugunez, herri ezberdinetako lurretatik pasatzen gara eta hauetako udaletxeren batek baimena ukatzea nahikoa da lasterketa bertan behera gelditzeko. Lasterketak Gernika, Amurrio, Zalla, Elgoibar eta Barakaldon izan dira. Gehienak Bizkaian izaten dira. Izan ere, bertan motozale talde indartsuak daude eta beraz antolaketa lanetarako jende gehiago dute. Bestalde, Gernikako lasterketa Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen eta bertan nire mailan laugarren postua lortu nuen.

“Gastua arinduko didan babesleren baten bila nabil”

Zer asmo dituzu datorren denboraldira-ko?

Martxoan aldean hasiko den denboraldia junior mailan azkenekoa denez, Trofeoa baino teknikoagoa den Txapelketan parte hartzeko asmoa dut. Euskadiko txapelketa korrituko dut, baina inguruan Espainiako txapelketaren frogaren bat suertatzen bada, bertara ere joango naiz. Bestalde, Euskadiko motokros txapelketaren froga batzuetan parte hartzeko

asmoa ere badut. Izan ere, motorrari oso aldaketa gutxi egin behar zaizkio eta abiadura entrenatzeko oso ona da.

Diru asko beharko da txapelketa haue- tan parte hartzeko...

Euskadiko txapelketan ez dago profesionalik eta zaletasun handia dugu-lako aritzen gara, gure poltsikotik dirua jartzen. Motorrak milioi inguru balio du eta 300.000-400.000 pezeta inguruko aurrekontua dut denboraldiko. Kirol hauek drogaren modukoak direla esan dezakegu: barruan zaudenean ez zara konturatzen nolako dirutza gastatzen ari zaren. Hori dela eta, gastua arinduko didan babesleren baten bila nabil. Ea norbait animatzen den!

Beste ezer esan nahi baduzu...

Motorrean ibiltzen garenek nahi-ko ospe txarra dugu mendizaleen artean, baina gu behintzat ahalik eta errespetu handienaz ibiltzen saiatzen gara. Debekatua dagoen tokietan ez gara sartzen eta jendea datorrela ikusten badugu abiadura mantsotzen dugu. Guk ere mendia asko atsegin dugu eta gurea mendiaz gozatzeko modu bat da. Oinez edo bizikletaz doazenek baino gehiago kutsatzen dugula onartzen dugu, baina nik behintzat hamarretakoa egiten dugunean zabor guztia etxera eramaten dut bueltan eta gutaz kezu diren askok zikinkeria bertan uzten dute. Dena den, aitortu behar dut motorzale batzuk errespetu gutxi izaten dutela eta beraien erruz ospe txarra dugula.



Iñaki Fidalgo

Iñaki, monjetan eta La Salle ikastetxean ikasten aritu ondoren, 18 urterekin Legazpiko Patricio Etxeberrian hasi zen lanean. Baina jendearekin harremanetan egotea gustukoa duenez, duela 14 urte Hezkor elektrotresna denda zabaldu zuen Zumarragako Urdaneta kalean. Oso gustura ageri da bere egungo lanarekin eta duela gutxi **BiTarteaneko**, bi herriotako dendarien elkarteko, zuzendaritza ere bere gain hartu du. Iñakiren iritziz, "dendarien erronka nagusia zumarragarrek eta urretxuarrek herrian erostea lortzea da eta horretarako ekimen orijinalak praktikan jarri beharko ditugu. Esaterako, asteburuetan haurrentzat ekintzak antolatu; hala gurasoak herrian geldituko dira eta bide batez herriko dendetan erosteak dakartzan abantailak ezagutuko dituzte".

Baina lana ez da dena bizitza honetan eta Iñakik hainbat zaletasun ere baditu, bizikletan ibiltzea esaterako. Bestalde, Iñaki eta bere lagunak, Potxu-Berezi koadrilakoak, bi herriotan aski ezagunak dira; oso gaztetatik bi herriotan antolatzen diren ekintza ezberdinetan parte hartzeaz gain, aitzakiaren bat aurkitzen duten bakoitzean parranda itzelak ere gustukoak baitituzte.

-Zer izan nahi zeruen umetan?

Jendearekin harremanak izatea eskatzen duen edozein lanbide.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Musika entzutea, zinera joatea, irakurtzea eta lagunekin egotea.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu-Zumarraga.

-Nork aukeratzen du zein elektrotresna erosi bikote batean?

Normalean, emakumeak.

-Eta nork deitzen du matxuraren bat duenean?

Emakumezkoak.

-Zein da gustuko duzun elektrotresna?

Bideo-kamera.

-Bizikletan ibiltzeko ezagutu duzun parajerik ederrena?

Soria.

-Bizikletan igo duzun porturik gogorrena?

Tourmalet.

-Sekula bota duzun parrandarik itzelena?

Behin Bergarako jaietatik gentozela Getariako hondartzara joatea erabaki genuen, etxean bainujantzia hartu eta haruntz abiatu ginen. Erdi lokartuta nindoanez, nik pedalak neramatzan eta aldamenekoak bolantea. Getariara heldu bezain pronto hondartzan lo hartu eta lagunek bainujantzia kendu eta egunkari paper batzuekin estali ninduten.

-Parranda egiteko egun eta toki bat?

Ostiraletan Urretxun.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Inor ez bereziki, ez dut idolorik.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Alabari oparitu nion ordenadorea.

-Eta jasotakoa?

Alkandora bat.

-Data bat?

1986ko urriaren 13a, nire ezkontza eguna.

-Neska izen bat?

Maialen.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Bertatik Bertara eta Informe Semanal.

-Bereziki gorroto duzuna?

El bus eta antzekoak.

-Liburu bat.

Orain "La historia interminable" irakurtzen ari naiz.

-Filme bat.

"La lista de Schindler".

-Gustuko abestia?

Pablo Milanesenak eta Serratenak.

-Soinu bat.

Eskusoinuarena.

-Usain bat.

Larrosarena.

-Ukitzeko...

Larrua.

-Janari bat.

Babarrunak.

-Ura ala...

Ardo beltza.




Gabon garaia, gure artera
Ailegatu zaigu berriz
Bake giroan ta itxaropenez
Ospatutzeko egarriz
Nagusi bedi giro goxoa
Alaitasun eta irriz
Kemena horretan jarriz.

URRETXU
ZUMARRAGA

IKASTOLA

URTE BERRI ON!

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA
FLORIDA - GOIKO KALE - LAKET - MOTZ
NAVARRO - OSABA - THE INTREPID FOX